


## Azken amazona



### Nina Alberg

Itzultzailea: Zabaleta, Josu

Bilduma: Narratiba, 149

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 144

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2023-12-04

ISBN-a: 978-84-9109-819-5

Materia: Helduentzako literatura

### Paperezko edizioa

**18,00 €**



XVI. mendean, esaten dutenez, espainiar konkistatzaileek emakume gudarien talde bati aurre egin behar izan omen zioten, eta, diotenez, emakume gudari haien itxura zen gizon konkistatzaile haiek entzundako kontakizun mitologikoetako protagonistena. Gizon zuriei eraso egin zieten bertako emakume indigena gudarien izenaz bataiatu zen oihana eta eskualdea: Amazonia. Orobat esan ohi da emakume batzuk, Icamiak, luzaro bizi izan zirela eremu hartan gizonetzkoengandik aparte. Baina nor ziren emakume haiek? Eta nola bizi ziren?

Gaur egun bertan ere, Amazoniako arro osoan, emakumeek –eta baita gizon batzuek ere– beren bizi-ereduaz eta beren hitzaz, emakume haiek biziarratzen jarraitzen dute.

*«Oraindik ere ikusten ari naiz, goiz-albako laino lodietan, eurien urtarotan, ia-ia garden: agerketa kezagarri samarrak. Emakumeak baino ez ziren, emakumeak baizik ez ziren ikusten. Isil-isilik iristen ziren, zurezko piragua luze batean, eta moilatik aparte samar lehorratzen ziren. Bizpahiru arraunlari ontzian geratzen ziren, zaintzaile; bestelako hamarren bat lehorrera jaisten ziren. Biluzik egoten ziren denak, azala ia beltza ukitu gorri batzuekin, lotsariak beren ile luzeaz estaltzen zituztela. Ibilera zaluz paseatzen ziren kaleetan zehar beren alabatxoekin. Bazirudien zehazki zekitelara nora joan behar zuten».*

## Nina Alberg



**Nina Alberg** 1988an jaio zen. Master bat du historia garaikidean eta beste bat dokumentalgintzan. Ikerketa-laguntzaile lan egiten du, eta geroztik hainbat erreportaje egin ditu RTS (Suitzako Irrati-Telebistarako), France Culture eta Arte Radorako. Irrati bidezko fikziozko serie bat sortu zuen 2020an, *Per comme personne*, arrakasta handikoa eta gorai-pamen ugari jaso dituena. Horrekin batera, soinu-errealizazioari buruzko tailerrak ere gidatzen ditu publiko gaztearentzat, Parisen eta Britainian. *Azken amazona* (2021) da bere lehen eleberria. Aurten *Pour Suzanne* argitaratu du.